

¿CUÁNTO DINERO VAMOS A PERDER LOS/AS TRANSPORTISTAS CON LA REFORMA DE LAS PENSIONES?

La reforma de las pensiones propuesta por el Gobierno español supone el fin del sistema público de pensiones, y la desaparición de facto del derecho a cobrar una pensión digna al final de la vida laboral. Por una parte se amplía la edad de jubilación de los 65 a los 67 años, lo que entre otras cosas puede suponer variaciones en el cese de actividad para el transportista autónomo tanto en la edad de acceso como en la cuantía de la ayuda. Por otra, se pretende el aumento progresivo del periodo de cotización para el cálculo de la pensión de los 15 años actuales a 25 años.

En las condiciones actuales, con la edad de jubilación a 65 años, 15 últimos años de cotización para el cálculo de la pensión, y cotización de 35 años o más, un transportista autónomo que haya cotizado entre los 50 y los 65 años por la base de cotización límite (para 2011 esta base de cotización es de 1.682,70), obtendría a los 65 una pensión bruta de 1.435 euros mensuales, con 14 pagas al año.

Si se materializa la reforma, un autónomo que quiera cobrar esa cantidad de dinero a la hora de la jubilación a los 67 años, es decir, alargando su vida laboral 2 años más, deberá cotizar durante 10 años más por la base límite.

Haciendo una estimación, la diferencia en términos económicos entre la situación actual y la futura de un transportista autónomo-tipo, supondría pagar alrededor de 250 euros más al mes, lo que en diez años serían 30.000 euros más, todo para mantener los derechos de pensión de jubilación que hay en la actualidad.

¿A DÓNDE SE QUIEREN LLEVAR NUESTRO DINERO?

Quiere convertir un derecho en un negocio. Los bancos se han descapitalizado y buscan dinero como sea, aparte del que les está dando el Gobierno, y por tanto su objetivo es la desaparición del sistema público de pensiones a favor de un sistema privado en el que cada cual ahorra para su propia pensión futura a través de una entidad bancaria. ¿A qué clase de delincuentes quieren que les regalemos nuestro dinero? Los diez mayores fondos españoles del sistema privado de pensiones están concentrados en cinco entidades bancarias: BBVA, Santander, La Caixa, Popular y Caja Madrid.

La Banca tiene intereses en juego, y su influencia política, y mediática es enorme. Su objetivo es meter miedo y convencer a la población de que el sistema público de pensiones no es viable y que la única manera de que sobreviva es reduciendo significativamente las pensiones públicas. Pero es totalmente falso que el sistema público de pensiones sea inviable. En cambio, la amenaza de quiebra sí planea sobre los fondos privados de pensiones de la Banca, que al estar mayoritariamente vinculados a la evolución de la Bolsa, se han hundido como consecuencia del colapso financiero de 2008.

SÍ HAY ALTERNATIVAS:

Las jubilaciones las pagan quienes trabajan, cotizando en función de lo que cobran; o sea que **la clave para el mantenimiento futuro del sistema radica en que aumente la población ocupada y que los empleos sean de mayor calidad y mejor remunerados.** Obviamente, hay que empezar por acabar con el paro, incrementar el nivel de ocupación (especialmente entre mujeres y jóvenes) y, simultáneamente, mejorar la productividad en una economía que produzca bienes y servicios con más valor añadido.

Paralelamente, es posible financiar las pensiones públicas no sólo a través de cotizaciones sociales sino también a través de los impuestos generales, aumentando la presión fiscal sobre las rentas de capital y las grandes fortunas, que son quienes están saliendo beneficiadas económicamente de esta crisis.

ZENBAT DIRU GALDUKO DUGU GARRAIOLARI AUTONOMOOK PENTSIONEN ERREFORMAREKIN?

Espainiako Gobernuak proposatu duen pentsioen erreformak sistema publikoaren amaiera ekarriko du, eta pentsio duina kobratzeko eskubidea indargabetzea suposatzen da. Batetik, erretiroaren adina 65 urtetik 67 urtera arte atzeratuko da, eta neurri hori oso kaltegarria izango da garraiolari autonomoentzat, esatebaterako jarduera etena hartzeko adina atzeratu eta dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko delako. Beste alde batetik, pentsioa kobratzeko gutxieneko kotizazio epea progresiboki 15 urtetik 25 urtera pasatuko da.

Egungo egoeran, alegia erretiro adina 65 urtekoa izanik, eta pentsioa kalkulatzeko epea 15 urtekoa, 50 eta 65 urteen bitartean muturreko kotizazio oinarrian kotizatzen ibili den garraiolari autonomoak (2011. urtean 1.682,70 eurokoa da), hilean 1.435 euroko pentsio gordina jasoko luke 65 urterekin eta 14 ordainsari kobratuz.

Erreformak aurrera eginez gero, kantitate hori kobratu nahi duen autonomoak 67 urterekin erretiratu beharko da, alegia bi urtez luzatu beharko du lan jarduera, eta gainera 10 urte gehiago kotizatu beharko du muturreko oinarrian.

Kalkulu hurbildua egitearren, eta ekonomikoki bakarrik hitz eginda, egungo egoera eta etorkizuneko erreformaren egoeraren arteko aldea batz bestea hilean 250 euro gehiago ordaintzea suposatuko lioke garraiolari autonomo bati, eta 10 urtean 30.000 euro gehiago, egun pentsioan biltzen zaizkion eskubideei eusteko.

NORA BIDERATU NAHI DUTE GURE DIRUA?

Eskubidea negozioa bilakatu nahi dute. Bankuak deskapitalizatu egin dira, eta Espainiako Gobernuak eman dien diruaz gainera, gehiago nahi dute. Horregatik euren helburua pentsioen sistema publikoa desagertu eta sistema pribatua indartzea da, horrela langile bakoitzak bere etorkizuneko pentsioa finantza erakunde baten bitartez kudeatuko baitu. Gure aurrezkiak nori bideratzea nahi dute? Espainiako pentsioen sistema pribatua bost finantza erakundeen esku dago: BBVA, Santander, La Caixa, Popular eta Caja Madrid.

Bankuek interes handiak dituzte jokoan, eta haien eragin politikoa eta mediatikoa izugarria da. Bankuen helburua jendartea beldurtzea da, eta halaber, pentsioen sistema publikoa ez dela bideragarria zabaldu nahi dute, eta egungo sistema mantentzeko pentsioak murriztu behar direla sinestarazi. Gezur hutsa da pentsioen sistema publikoa ez dela bideragarria. Aitzitik, banketxeen pentsio funtsa pribatuen porrotaren mamua gero eta gehiago zabaltzen ari da, funts hauek Burtsari atxikirik daudelako eta 2008ko finantza kolapsoaren ondoren behea jo dute.

ALTERNATIBAK BADAUDE:

Erretiroa lan egiten dutenek ordaintzen dute, kobratzen dutenaren arabera kotizatuz; **alegia, pentsioen sistema publikoaren bermea lanean dagoen jende kopurua handitzea da, baita kalitateko lanbideak sortzea eta soldata hobeagoak ordaintzea ere.** Jakina, langabezia txikitu beharko da, okupazio maila igo behar da (batez ere gazteak eta emakumeak lan merkatuan sartuz), eta aldi berean balio erantsi gehiago dituzten ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen duen ekonomiaren produktibitatea hobetu behar da.

Halaber, posible da pentsio publikoak finantzatzeko kotizazio sozialak erabiltzeaz gainera zerga orokorrak erabiltzea, eta zehazki kapitalaren errentei eta ondasun handiei presio fiskala handitu, krisia baliatzen ari baitira etekin ekonomiko handiak lortzeko.

